



AFGANISTAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu batetik, Jaurlaritzak dituen baliabide propioetako plazak eskaintzeko Gobernu Zentralari nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzat, eta bestetik, Gobernu Zentralak nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egiteko dituen plaza libreak erabiltzeko.
- Eusko Jaurlaritzak 2018. urtetik bultzatutako SHARE proposamena Europako agendan jartzeko eskatzen dugu. Bizi dugun migrazio-erronkaren aurrean erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzera eta islatzera bideratutako proposamena. Erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzeak erantzuna partekatzea esan nahi du, gizarte inklusiboak eraikitzen bideratutako konpromiso arduratsuaren bidezkoa.
- Nazioarteko babesa behar duten pertsonak sartzeko legezko bideak areagotzea eta dibertsifikatzea premiazkoa denez, Gobernu Zentralari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu jarraitzeko Euskadin aitzindaria den Babes Komunitarioa bezalako programak sustatzen. Babes Komunitarioa izeneko programak herritarrei errefuxiatuen harreran eta integrazioan zuzenean parte hartzeko aukera ematen die.
- Gobernu Zentralari eskatzen diogu Euskadin bizi diren 45 afganiarrekiko elkarrizketa indartzeko, senitartekoen datuak jaso ahal izateko eta familiak berriz elkartzeko.
- Gainean dugun krisi humanitarioaren aurrean, inoiz baino premiazkoagoa da migrazio-fluxuak humanizatzea eta igarobide seguruak ahalbidetzea. Horretarako, korridore humanitarioak eskatzen ditugu, iheslari guztientzat ibilbide seguruak bermatzeko, jazarpenaren, gerraren edo giza eskubideen beste edozein urraketaren ondorioz beren herrialdeak utzi behar dituzten kasuetan.